



Esp.-kodea: 2017SAPL0009

UDAL PLENOA
Bilkura arrunta

BILKURA DATUAK

EGUNA: 2017/11/07	TOKIA Udaletxea
HASIERA ETA BUKAERA ORDUA 18:00 - 19:15	

BILDUTAKOAK:

- Lehendakaria: María Ubarretxena Cid (EAJ-PNV)
- Zinegotziak: Ibon Arrupe Aldecocca (EAJ-PNV)
Juan Ramon Mendieta Garay (EAJ-PNV)
Ander Garay Zabaleta (EAJ-PNV)
Amaia Ceciaga Garmendia (EAJ-PNV)
Juan Karlos Garitano Ezkurra (EAJ-PNV)
Amaia Azpiazu Aramburu (EAJ-PNV)
Anuska Ezkurra Zubizarreta (EAJ-PNV)
Eneko Barberena Mondragon (EH BILDU)
Amaia Larrañaga Galdos (EH BILDU)
Eneko Fernandez Ortiz de Luzuriaga (EH BILDU)
Maialen Zabaleta Madinabeitia (EH BILDU)
Jose Luis Encinas Jose (EH BILDU)
Itxaro Artola Lizarralde (EH BILDU)
Urki Larrea Ibabe (EH BILDU)
Oscar Garcia Horrillo (PSE-EE)
Victoriano Fuentes Noguera (PSE-EE)
Anabel Legaz Canflanca (PSE-EE)
Igor Urizar Murgoitio (Baleike)
Eva Abuin Bideburu (Baleike)
Juan Luis Merino Sanabria (Irabazi Arrasate)
- Idazkaria: Amaia Gorrotxategi Zubizarreta
- Beste funtzionario batzuk: Iñaki Balzategi Garai, Kontuhartzailea.

BILDU EZ DIREN
UDALKIDEAK:



Esp.-kodea: 2017SAPL0009

BERTARATZE
ETA IRTEERAK:

Bilkura hasi denetik bukaeraraino ez da bertaratze zein irteerarik izan.

M. UBARRETXENA (Lehendakaria): Arratsaldeon denoi, gaurko plenoari hasiera emango diogu.

Hasiko dugu plenoa zazpigarren puntua sartzea bozkatzen, badakizue bozeramaile ez? orduan zazpigarren puntura iristen garenean bozkatutako dugu 7. Puntua sartzea bozeramaile batzordean aipatu genuen bezala bidaiaren errepide bidezko garraio zerbitzu publiko erregularrak armonizatzeke erregelamenduan ere aldaketa bat egon delako. Orduan lehenengo puntuarekin hasiko gara.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

2017ko urriaren 3ko bilkuretako akta, aho batez, onartzen da.

2.- “CESPA, SA”; PROPOSAMENA 2017KO APIRILAREN 30AREN ONDORENEKO URTEETARAKO BIDE GARBIKETAKO ZERBITZUAREN KANONA EGOKITZEKO.(2006CHOZ0038)

Udal Plenoak, aho batez, Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Udalaren Zerbitzu Teknikoek proposatzen dute onartzea 2017ko apirilaren 30aren ondorengo urteetarako bide garbiketako zerbitzuaren kanona egokitzea, “Cespa, SA” enpresak eskatuta.

Udalaren Zerbitzu Teknikoek txostena aurkezten dute eta bertan hurrengoak jasotzen da:

- a) 2007ko martxoaren 26an kale garbiketa zerbitzua emateko Arrasateko Udalak eta “CESPA COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES, S.A.” (“Cespa, SA”) enpresak kontratua sinatu zutela.
- b) Aipatutako kontratuaren epe originala 2017ko apirilaren 30ean amaitu zela, eta ordurako Arrasateko Udalak martxan ipinita zuela kontratazio prozedura berri bat kale garbiketa kontratu berria adjudikatzeko.
- c) 2017ko maiatzaren 9an Arrasateko Udalaren Plenoak erabaki zuela “CESPA, COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PÚBLICOS AUXILIARES, S.A.” enpresari adjudikatzea ARRASATEKO KALEEN ETA ANTZEKOEN GARBIKETAREN ZERBITZUAK.
- d) Ondoren, “SERBITZU ELKARTEAK, SL” eta “FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS, SA” enpresek sorturiko UTEak errekurritu zutela Eusko Jaurlaritzaren Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organora Plenoak 2017ko maiatzaren 9an



Esp.-kodea: 2017SAPL0009

harturiko akordioa, “Cespa, SA” enpresari kale garbiketa zerbitzua adjudikatzen ziona, eta Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak uztailaren 10ean errekurtsua onartu zuela, espedientea atzera eginez adjudikazio aurreko unera eta “Cespa, SA” enpresa lehiaketatik kanpo utziz.

- e) Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak esandakoari jarraituz 2017ko urriaren 3an Udal Plenoak erabaki zuela “SERBITZU ELKARTEA S.L.-FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS S.A., UTE LV ARRASATEri adjudikatzea “ARRASATEKO KALEEN ETA ANTZEKOEN GARBIKETAREN ZERBITZUAK”.
- f) Egoera honetan eta jakin gabe oso ondo zer denbora igaroko den kale garbiketa kontratu berria izan arte, bai dela beharrezkoa finkatzea egunero jasotzen ari garan kale garbiketa zerbitzuaren prezioa.
- g) Aztertu direla “Cespa, SA” enpresak aurkezturiko datuak, batetik, 2007an sinaturiko kontratuan oinarria daukatenak, eta hauek zuzenak direla, eta bestetik, konponketa gastuei dagokionez, “Cespa, SA”k oinarritzen dituenak bere beste ustiapen batzuen esperientzian, aztertu direla Udal beste zerbitzu batzuen konponketa gastuen portzentaiak, ikusiz aurkezturiko datuak zuzenak izan daitezkeela.
- h) “Cespa, SA” enpresak bere idazkian aurkezten duela hurrengo lau urteetarako kanonaren garapena, baina ez dugula uste hori erreala denik, batetik, datu horiek oinarria daukatelako gaur eguneko ibilgailu eta makinerian, eta beraien egoeraren baldintza zehaztetan, eta bestetik, zerbitzuaren ikuspuntutik, ezinezkoa izango delako maila egoki bateko zerbitzua mantentzea bizitza agortuta, edo agortzeaz duten ibilgailu eta makinekin.
- i) “Cespa, SA” enpresak kalkulua egiteko kentzen dituela zerbitzuaren kontratuaren barne dauden makinaren amortizazio gastuak, 2017ko apirilaren 30arte Udalak ordainduak %100era arte, eta eguneratzen ditu makinaren konponketa gastuak. Kalkulu guztiak egiten direla 2007ko martxoaren 26an kale garbiketa zerbitzua emateko Arrasateko Udalak eta “CESPA COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES, S.A.” (“Cespa, SA”) sinaturiko kontratua oinarri hartuta. Proposamena hurrengo dela:

	10. urtea	11. urtea	12. urtea	13. urtea	14. urtea
Konponketa gastuak	22.440,38	78.738,18	95.273,19	113.382,97	133.067,52
Amortizazioak	67.009,40	0	0	0	0
Fakturazio aldea		-10.711,60	5.823,41	23.933,19	43.617,74

- j) Aurrekoaren ondorioz, Udalaren Zerbitzu Teknikoek proposatzen dute onartzea “Cespa, SA” enpresaren 11. urterako proposamena, - 12.843,21€koa (kontuan hartuta bertan gehituta daudela gastu orokorrak+etekin industrialak, %9an, eta BEZA %10ean) aplikatuko dena zerbitzuaren ezaugarriak eta baliabideak mantentzen diren bitartean, eta/edo kale garbiketa kontratu berria adjudikatu arte, eta gehienez, urte beteko (2017-5-1/2018-4-31) iraupena izango lukeena.



Esp.-kodea: 2017SAPL0009

Azaldutakoa aztertuta, Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako batzordeak proposatzen du:

- Onartzea “Cespa, SA” enpresaren 11. urterako proposamena, - 12.843,21€koa (kontuan hartuta bertan gehituta daudela gastu orokorrak + etekin industrialak %9an eta BEZa %10ean) aplikatuko dena zerbitzuaren ezaugarriak eta baliabideak mantentzen diren bitartean, eta/edo kale garbiketa kontratu berria adjudikatu arte, eta gehienez, urte beteko (2017-5-1/2018-4-31) iraupena izango lukeena.

3.- “AGITAX”; PROPOSAMENA TAXI ZERBITZUAREN 2018KO HIRI TARIFEI BURUZ.(2017ZZER0166)

Udal Plenoak, aho batez, Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Udalaren Zerbitzu Teknikoek onartzeko proposatzen dute “AGITAX” elkarteak (Asociación Guipuzcoana del Taxi/Gipuzkoako Taxisten Elkarte) eskatuta 2018. urterako auto-taxi zerbitzuaren hiri tarifak % 1,6 igotzea, 2017 urtearekiko.

Halaber, txostenak hurrengoa azaltzen du:

- a) Udalbatzarrak, 2016ko urriaren 25ean egindako bilkuran, 2017 urterako tarifak onartu zituen.
- b) Egindako proposamenean aurkezten diren parametroak batetik, INEko datu ofizialekin erlazionatuta daude, eta bestetik, lan egutegi-ordutegia elkarteak dituen datu objetiboetan oinarritzen direla diote.
- c) Udalarari dagokio hiri tarifen erregimena, Bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen 2/2000 Legearen 3.3 eta 17.6 artikuluen arabera, nahiz eta, geroago bidali beharko den espedientea Merkataritzako Lurralde Ordezkaritzara, era berean hark Euskadiko Prezioen Batzordeari bidaltzeko, eta azken horrek tarifak aztertuko ditu eta, hala badagokio, baimendu.
- d) Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak, 2005eko irailaren 22an, Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako diputatuaren Foru Agindua argitaratu zuen, 2005eko abuztuaren 23an eman zuena, eta haren bidez, taxi zerbitzua emateko, Debagoieneko Erregimen Bereziko Espazioa eratzea onartu zuen. Eta ezarritako baldintzen artean, besteak beste, tarifen bateratzea agertzen da. Aplikatu beharreko tarifa, zerbitzuaren arabera, berdina izango da osatzen duten udalerrri guztientzat.
- e) Aurrekoaren ondorioz, Udalaren Zerbitzu Teknikoek proposatzen dute onartzea “AGITAX” elkarteak aurkezturiko auto-taxiaren 2018ko hiri tarifak, taula honetan zehazten direnak:



Esp.-kodea: 2017SAPL0009

	BANDERA JAISTEA	EGINDAKO KM	ITXARON ORDUA
I TARIFA EGUNEKO, LANEGUNEAN*	3,5693 €	1,1181 €	21,3538 €
II TARIFA GAUEKOA/JAIEGUNEAN	3,5693 €	1,7834 €	33,5680 €

Azaldutakoa aztertuta, Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako batzordeak proposatzen du:

1.- Onartzea “AGITAX” elkarteak aurkezturiko auto-taxiaren 2018ko hiri tarifak, taula honetan zehazten direnak:

	BANDERA JAISTEA	EGINDAKO KM	ITXARON ORDUA
I TARIFA EGUNEKO, LANEGUNEAN*	3,5693 €	1,1181 €	21,3538 €
II TARIFA GAUEKOA/JAIEGUNEAN	3,5693 €	1,7834 €	33,5680 €

2.- Bidaltzea Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzari, batetik, tarifak berraztertzeke hasitako espedientea eta, bestetik, akordio honi buruzko ziurtagiria, aztertzen ari garen tarifak berraztertzeke espedientearen tramitazioa egiteko, 2018 urterako %1,6ko igoera dakartenak 2017 urtearekiko.

3.- Bidaltzea akordioaren jakinarazpena Debagoieneko Mankomunitateari eta “AGITAX” elkarteari.

4.-BAKE EPAILEA ETA HAREN ORDEZKOA IZENDATZEKO PROPOSAMENA. (2017PBAK0001)

Udal Plenoak, aho batez, Enplegu eta PertsonalBatzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Kontuan harturik, Botere Judizialaren Lege Organikoaren eta Bake Epailen 3/1995 Erregelamenduaren, ekainaren 7koa (1995eko uztailaren 13ko BOE) 101. eta hurrengo artikuluetan



Esp.-kodea: 2017SAPL0009

ezarritakoaren arabera, EAEJANek agertu zuela Udalbatzarrak ahalik eta lasterren proposatu behar duela herriko bake epaile berria.

Udalbatzarrak 2017ko ekainaren 6an hautaketa prozesua egokitzeko arauak onartu eta gero, arauok Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 128.a, 2017ko uztailaren 5ekoa, argitaratu zituzten. Halaber, deialdi horren iragarkia argitaratu zuten udal taulan eta udalaren web orrian eta herriko hainbat hedabidetan.

Hautagaiak aurkezteko pentsatutako epean, uztailaren 6tik abuztuaren 3 arte luzatu zena, denboraz eta formaz ordezko bake epailearen kargurako zazpi eskabide jaso genituen.

Halaber, hautagaien merituak baloratu eta gero, Epaimahaiak akta egin du.

Enplegu eta Pertsonal Batzordeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 22.2 p) eta 22.4 artikuluen, Botere Judizialaren 6/1985 Lege Organikoaren 101.2 artikuluen eta Bake Epaileen 3/1995 Erregelamenduaren 4. eta 6. artikuluen arabera, AKORDIO hau hartu dezan proposatu dio Udalbatzarrari:

AKORDIOA:

LEHENA. Izendatzea **Itzasne Otaduy Perez de Mendiguren** andrea Arrasateko udalerriko bake epaile eta **Maddalen Arregi Askasibar** bake epaile ordezkoa.

BIGARRENA. Akordioa bidaltzea Barruti Judizialeko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko epaileari, eta hark bidaliko du Gobernu Aretora (Botere Judizialaren ekainaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 101.3 artikulua ea Bake Epaileen ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduaren 7. artikulua).

5.- PROPOSAMENA ARRASATEN HONDARRIBIA ETA MAKATZENA KALEEN ARTEAN IGOGAILU BERRIAREN PROIEKTUA EXEKUTATZEKO DIREN LURSAILAK ZUZENEAN OKUPATZEKO. (2017HDJA0001)

Udal Plenoak, aho batez, Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasun Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

2017ko uztailaren 11n behin betiko onartu zen “A.E.- 60 HONDARRIBIA KALEA eremuko Hiri Antolamenduko Plan Berezia”. Plan bereziak ezarri du eremuaren antolamendua, eta besteak beste gehitu du eremuko tokiko sistemen azalera, dimentsionamendu bat emateko, eta egokitzea komunikazioak tokiko sistemen sareari. Horren ondorioz, tokiko sistemak handitzearen exekuzio fisikoak, planaren arabera, eskatzen du lursailaren zati bat okupatzea, une honetan titulartasun pribatukoa dena.



Esp.-kodea: 2017SAPL0009

Gainera, kontua da 2017ko urriaren 5ean onartu zela “Igogailu berriaren proiektua Hondarribia eta Makatzena kaleen artean Arrasaten”, zeinak jasotzen duen ere komunikazioen tokiko sistemen sarea zabaltzeko obraren burutze efektiboa, eta horrek behartzen du titulartasun pribatuko lursail baten zati bat okupatzera, obra exekutatu ahal izateko.

Igogailua bera da obra bat eremuko azpiegituren tokiko sistemen sareari dagokiona, eta haren exekuzioa da urgentea udalarentzat, eta horretarako beharrezkoa da edukitzea lursailak, obrak exekutatzeko.

II. Legeria aplikagarria da:

- 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa, dioena 188. Artikuluan.
- 123/2012 Dekretua, uztailaren 3koa, hirigintza estandarrei buruzkoa.
- Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina, onartua 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urraren 30ekoa.
- Jabetza nahitaez kentzeko Legearen 112. artikulua, 1954ko abenduaren 16koa.
- 1957ko apirilaren 26ko Dekretuaren 3.4 artikulua, zeinak onartzen duen jabetza nahitaez kentzeko Legearen erregelamendua.
- 1093/1997 Errege Dekretua, uztailaren 4koa, zeinak onartzen dituen arau batzuk Erregelamenduaren osagarriak, Hipoteka Legea exekutatzeko Hirigintza izaerako Egintzak inskribatzeari buruz Jabetzaren Erregistroan.

Ikusita aurreko guztia, eta kontuan hartuta 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa, zer dioten 188. Artikuluan, eta onartzea dagokiola osoko bilkurari, Jabetza Nahitaez Kentzeko Legearen Erregelamenduaren 3.4 artikulua araberak, zeina onartu zuen 1957ko apirilaren 26ko Dekretuak, Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasun Batzordeak proposatzen dio osoko bilkurari akordio hau hartu dezan:

LEHENA.- Okupatzea zuzenean, exekutatzeko “Igogailu Berriaren Proiektua Hondarribia eta Makatzena kaleen artean Arrasaten”, lursail hauek, hemen zerrendatzen direnak eta titular hauenak:

- Lursaila dago Arrasaten, AE 60.- HONDARRIBIA KALEAn; haren ezaugarri nagusiak dira hauek:

Zuzenean okupatzen den zatia:

“Lursailaren zatiak du 52,97 m², eta mugatzen du iparrean HONDARRIBIA KALEA izeneko bidearekin; ekialdean banantzen den partzelarekin; mendebaldean HONDARRIBIA KALEA izeneko bidearekin; eta hegoaldean HONDARRIBIA KALEA izeneko bidearekin eta banantzen den partzelarekin.”

Bananduko da finka nagusitik, zeina deskribatzen den hemen:



Esp.-kodea: 2017SAPL0009

“HIRI LURRA, HEMERETZIGARREN ERAIKINA, FAMILIA BAKARREKOA, lursail gerakina Arrasateko jurisdikzioan, Santa Marinako etxe multzoan, gaur egun adierazia HONDARRIBIA KALEA 2. Eraikinaren orube azalera da laurogeita bat metro koadrokoa; datu hori zuzendu egin da, izan ere, duela gutxi neurtu dute adituek, eta benetan du hirurogeita sei metro koadro. Soto trastelekua du, goi planta bakarra, etxebizitzarako dena, sarbidea kanpo eskailera batetik, adosatua mendebaldeko fatxadari. A tipokoa da, eta dauzka sukaldea, lau logela eta komuna. Mugatzen du aurrealdetik mendebaldera, hegoaldetik eta iparraldetik bere lursail soberakinarekin, eta ekialdetik hogeitazentzako etxearekin. LURSAIL SOBERAKINA, etxekoen orturako dena, azaleran da bostehun eta hogeita hamar metro koadro eta muga du iparraldetik, hegoaldetik eta mendebaldetik, banandu zen finkaren lursail soberakinarekin, eta ekialdetik hogeitazentzako etxearen lursailarekin, barrualdetik iparraldetik, hegoaldetik eta ekialdetik, muga du eraikinarekin berarekin.”

- Jabetza Erregistroaren datuak: Finka hori dago inskribaturik Bergarako Jabetza Erregistroan, finka zk. 5527 Arrasatekoa, Tomoa 615, Liburua 364 eta Folioa 24.

- Katastro erreferentzia: 4268189.

- Titularrak: Jose Antonio Urquiola Vélez de Guevara (ehuneko 17) eta Felipa Urquiola Vélez de Guevara (ehuneko 64).

- Dagokion hirigintza eraikigarritasuna: Ateratzen dena hemendik: PEOUK Hondarribia kalea 2ko jatorrizko partzelari emandako hirigintza eraikigarritasuna banatuta, onartzen diren hirigintza exekuzioko tresnen arabera.

- Exekuzio unitateak non gauzatu behar duen eraikigarritasuna: A.E. 60. - HONDARRIBIA KALEAREN jardun integratuaren Hirigintzako Jarduketa Programak zehazten duena.

BIGARRENA.- GAO n argitaratzea zuzeneko okupazioak eragindako lursailen eta jabeen zerrenda, adierazita horietako bakoitzaren hirigintza eraikigarritasunak eta zer exekuzio sektoretan edo unitatetan gauzatu diren haien eskubideak. Halaber, interesdunen eskura egongo da udal honen egoitza elektrikoan, www.arrasate.eus.

HIRUGARRENA.- Jakinaraztea banan-banan jabe horiei egin gura den okupazioari buruz eta haien lursailen esleitutako hirigintza eraikigarritasunari buruz, baita ere, zer exekuzio sektoretan edo unitatetan gauzatu den hori.

LAUGARRENA.- Deitzea jabe horiei 2018/01/30erako, egun horretan okupatuko baitira lursailak, egintzan presente egon daitezten, eta teknikariak ere bai, izan ere, une horretan akta jasoko da, non jasota geratuko diren:

- Non eta noiz egiletsi: partzelan bertan, 2018ko urtarrilaren 30ean, 10:00etan.

- Administrazio jardulea: Arrasateko Udala.

- Okupatutako lursailen titularrak nortzuk diren eta haien erregistro egoera.



Esp.-kodea: 2017SAPL0009

- Azalera okupatua: 59,97 m².

BOSGARRENA.- Ahalmena ematea alkateari edo berak delegatzen duen zinegotziari, udal teknikariarekin eta idazkariarekin batera, edo hark delegatzen duenarekin, agertu daitezen egun horretan eta jaso dezaten okupazioaren akta.

SEIGARRENA.- Egitea egiaztatzeko administrazio ziurtagiria, jasotako aktaren alderdi guztiena, okupatutako lursailen jabe bakoitzaren alde.

ZAZPIGARRENA.- Bidaltzea Jabetza Erregistrora jasotako aktaren ziurtagiriaren kopia bat, planoarekin batera, han inskribatu dezaten.

6.- 2017ko AURREKONTUAREN KREDITUAK ALDATZEKO ESPEDIENTEA ONTZAT EMATEKO PROPOSAMENA. (2017DKRE0003)

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Hemen emendakin bat aurkeztu da, orduan lehenengo emendakina irakurtzera pasatuko gara eta gero emendakina bozkatzera eta ondoren puntua.

A.GORROTXATEGI (Idazkaria):

Esan bezala emendakin bat aurkeztu OZMA batzordean atzo azal dutako informazioaren arabera orduan Oscar Garcia Horrillok aurkeztu du emendakina eta jarraian irakurriko dut emendakina bozkatuko da emendakina eta onartzen baldin bada. Ondoren gaia bozkatuko genuke emendakina sartuta, emendakina bane ez baldin bada onartzen gaia bozkatuko dugu lehengo erredakzioaren arabera.

EMENDAKINA

2017ko azaroaren 7ko osoko bilkuran ikusiko den 2017 urteko kredituak aldatzeko espedienteari Oscar Garcia Horrillo zinegotziaren emendakin proposamena.

Oscar Garcia Horrillo Arrasateko Udaleko zinegotzia naizenak, Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako zinegotzi eskuordetuak, emendakin proposamena aurkezten dut 2017ko azaroaren 7ko Osoko Bilkuran ikusiko den 2017 urteko kredituak aldatzeko espedienteari, besteak beste, proposatzen dut, kreditu aldaketa espedientean sartzea 92.000 €ko diru kopuru gehikuntza eranstea Musakolan dagoen San Antolin eskolako jolastokian elektrizitate transformazio zentroa lekuz aldatzeko lanetarako. Behin kopuru hau erantsita kontusaila 292.000 €tan geratuko zen.



Esp.-kodea: 2017SAPL0009

Gehikuntzaren beharra oinarritzeko orduan, adieraztea kontusail horretan, dagoeneko, erabilgarria gelditzen dela 98.389,22 € (orain arte onartutako gastuak- 88.408,47€, Iberdrolaren eskuhartzerako, eta 13.202.31€, obra proiektua idatzi eta lanen obra zuzendaritzarako) eta erabilgarri hori ez dela nahikoa gelditzen den obra zibilaren kontratazio espedientea, 189.006 €ko aurrekontua duena, gehi Obra lanen Segurtasun eta Koordinazioa finantzatzeko.

Dagokigun proposamena une honetan egiten da, proiektuaren aurrekontua ezagutu delako Kredituak Aldatzeko espedientea Ogasun Batzordeak diktaminatu ondoren.

Beraz, gehitu beharreko kontusailen artean, “1.0900.601.323.00.01.-San Antolin Eskolako argindar transformadorea” kontusaila ere sartzea proposatzen dut, 92.000€ko dotazioez, eta, aldi berean, bere finantziazioa, kopuru berdinatik, beste kontusailen murrizketaran bitartez planteatzen dut, ondorengo hauetatik, hain zuzen ere:

- “1.0800.227.163.00.00-Kale Garbiketa zerbitzua” kontusailetik, 33.000€
- “1.0800.227.163.10.00- Kale garbiketako aukerako zerbitzuak” kontusailetik, 18.000 €
- “1.0200.623.338.00.01- Karparen erosketa” kontusailetik, 12.000€
- “1.0810.622.164.00.00-Hilerriko inbertsioak” kontusailetik, 9.999,99€
- “1.0800.622.920.10.00-Zetro Publikoetako Argiteria Hobetzea” kontusailetik, 6.000€
- “1.0805.601.161.00.00- Ur eta Saneamenduko Inbertsioak” kontusailetik, 5.000 €
- “1.0809.601.161.00.00- Bide publikoen seinalizazioak” kontusailetik, 5.000€
- “1.0931.622.231.51.00- Emakume Txokoko egoitza berria” kontusailetik, 3.000,01€

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Orduan orain bozkatzera pasatuko gara emendakina

Bertaratuak	21	
Aldeko botoak:	19	EAJ-PNV (8), EH-BILDU (7), PSE-EE (3) eta IRABAZI (1)
Kontrako botoak:		
Abstentzioak:	2	BALEIKE (2)

Beraz onartzen da.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Orduan 6. Puntua irakurtzera pasatuko ginateke.

2017ko AURREKONTUAREN KREDITUAK ALDATZEKO ESPEDIENTEA ONTZAT EMATEKO PROPOSAMENA. (2017DKRE0003) *(emendakinak eragindako zenbatekoetako aldaketak sartuta)*



Esp.-kodea: 2017SAPL0009

Udalbatzarrak 2016/12/20ko bileran 2017ko aurrekontuak onartu zituen. Agiri horretan jasota zegoen 2017ko ekitaldian gauzatu beharreko udal jardueren programa, ondorio ekonomikoak dituzten jardueri dagokiena.

Ordutik, Aurrekontuak onartu zirenetik, egitasmoak landu ahala, zenbait programatan eta kontu sailetan aldaketak sartzeko beharra ikusi da. Horietako batzuk, gaiaren urgentzia edo aldaketaren edukiaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarretik onartu badira ere, beste zenbait planteamendu izapidetu gabe gelditu dira. Ekitaldiaren bukaeran egonik, Gobernu taldeak ulertu du proiektu edo programa berriak onartzea salbuespena izan behar dela, horiek txerkateta egokiagoa izango dutela 2018 ekitaldirako aurrekontuetan.

Dena den, urte itxierari begira egin beharreko doiketak eta egon daitezkeen proposamen berriak modu ordenatu batez jasotzeko eta kudeatzeko, Gobernu Taldeak erabaki du izaera orokorreko errebisioa bultzatzea, eta aukera ematea sail guztiei bere aldaketa proposamenak planteatzeko.

Emandako epearen barruan, hainbat eskaera jaso dira, batzuk bere finantzazio bidea planteatuta eta besteak, ordea, finantzazio iturria planteatu gabe. Eskaerak aztertzeko orduan, kontuan izanda aurrekontuaren sarrera ataletik ez dela arrisku handirik ikusten urteko balioespenetan desbideraketa esanguratsuak izateko eta, ondorioz, planteatutako gastu gehikuntzak gastu murrizketarekin finantzatu behar dira.

Numerikoki laburbilduta, Ogasun Batzordeak ontzat emandako gastu gehikuntzen kopurua da 539.500 eurokoa, kopuru bereko gastu murrizketarekin finantzatuko dena, eta planteatutako aldaketa nagusiak multzoka sailkatuta, honako hauek dira:

- Gizarte Larrialdietarako laguntzak emateko kontusaila 15.000€tan handitzea.
- Babesgabetasun egoerak kudeatzeko Aholkularitza Zerbitzuan, eskari gehikuntza dela eta, Ongizate sailera heldu daitezkeen kasuak erantzuteko, 40.000 euroko dotazio osagarria.
- Hondarribia kaleko etxebizitza erosteko kontusail berri bat sortzea, 230.000€ko dotazioaz
- Kontratazio prozedurak martxan jartzeko 2017ko likidazioaren soberakinaren erabilera onartu arte itxoin gabe, inbertsio kontusail batzuetan dotazio osagarria onartzea, Makatzenako Urbanizazioa (55.500€) eta Bide Publikoen urbanizazioa (Bizkaia Etorbideko espaloiak, 35.000€).
- Jakion elkarterako laguntza izenduna sortzea (6.000€)
- Gastu arrunteko kontu sail batzuetan izandako desbideraketak (jubilatutako etxeak, Jakinarazpen zerbitzua, pertsonal ikastaroak, bulego materiala, artxibo berrien funtzionamendu gastuak, kiroldegien funtzionamendu eta garbiketa zerbitzuak, hilerriko gastuak, erabilera orokorreko eraikinen konponketa gastuak, argiteria publikorako erosketak, etab.), itxierarako estaldura klabea eskatuta, 130.500 euro.



Esp.-kodea: 2017SAPL0009

- Murrizketei dagokienez, kale garbiketaren zerbitzua (kontratu berriarekin izandako gorabeheren arabera, soberakin garrantzitsu bat lortu da 2017an), Uribarri Etorbideko obrak, eta beste zenbait aurreikusitako ekonomiak erabiliko direla gastu gehikuntzak finantzatzeko.

Hori dela eta, jasotako kredituak aldatzeko proposamenak aztertu dira batzordean, eta onargarriak direla iritzirik, EAJ-PNV, BILDU eta PSE-EE udal taldeetako ordezkarien aldeko botoekin, eta BALEIKE eta IRABAZI udal taldeetako ordezkariaren kontrako botoarekin, Ogasun batzordeak akordio hau hartzea proposatzen dio Udalbatzarrari:

1.- Onartzea 2017ko Aurrekontuaren Kreditu Aldaketaren espedientea, diktamen honen eranskinean doan xehetasunaren arabera, kreditu transferentziako erregimenean, zenbaki laburpen honekin:

A – GASTUAREN GEHIKUNTZA

<i>II. Kap. - Ondasunak erostea eta Zerbitzu arruntak</i>	<i>198.000,00 euro</i>
<i>IV. Kap. - Transferentzia arruntak</i>	<i>21.000,00 euro</i>
<i>VI. Kap. - Inbertsioak</i>	<i>412.500,00 euro</i>

GASTUAREN GEHIKUNTZA GUZTIRA **631.500,00euro**

B – FINANTZAKETA

B.1 GASTU MURRIZKETA

<i>II. Kap. - Ondasunak erostea eta Zerbitzu arruntak</i>	<i>382.000,00 euro</i>
<i>VI. Kap. - Inbertsioak</i>	<i>249.500,00 euro</i>

GASTU MURRIZKETAK GUZTIRA **631.500,00 euro**

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Interbentzioak?

J.L MERINO (IRABAZI):

Yo ya intervino en la comisión y simplemente no voy a intervenir más yo creo que las modificaciones de crédito suelen ser otro atajo más para gobernar nos parece que no se ajustan a los programas que luego hacéis modificación de créditos cada vez que queréis y eso lo dije en la comisión y encima vote en contra de esta modificación de créditos ahora incorporándose esta enmienda nos hemos replanteado porque estábamos de acuerdo con esta enmienda y alguna de las partes de la modificación de créditos



Esp.-kodea: 2017SAPL0009

como es el tema de Hondarribi, de la compra de la parcela de Hondarribi nos vamos a abstener.
Quiero que se vote

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Beste interbentziorik?

Bozkatzera pasatuko gara.

Bertaratuak	21	
Aldeko botoak:	18	EAJ-PNV (8), EH-BILDU (7), PSE-EE (3)
Kontrako botoak:		
Abstentzioak:	3	BALEIKE (2) eta IRABAZI (1)

7.- BIDAIAIEN ERREPIDE BIDEZKO GARRAIO ZERBITZU PUBLIKO ERREGULARRAK HARMOZIZATZEKO ERREGULAMENDUAREN ALDAKETA. (2014ZZER0155)

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Zazpigarren puntua bozkatu egin behar dugu sartzea bozeramaile batzordean esplikatu zenez izan da Garraioaren Lurralde Agintaritzak egindako modifikazio bat bere erregelamenduan. orduan puntua sartzearen alde?

Bertaratuak	21	
Aldeko botoak:	21	EAJ-PNV (8), EH-BILDU (7), PSE-EE (3) BALEIKE (2) eta IRABAZI (1)
Kontrako botoak:		
Abstentzioak:		

Aho batez onartzen da berez zazpigarren puntura pasatzen gara.

BIDAIAIEN ERREPIDE BIDEZKO GARRAIO ZERBITZU PUBLIKO ERREGULARRAK HARMOZIZATZEKO ERREGULAMENDUAREN ALDAKETA.

Udal Plenoak, aho batez, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren ondoko proposamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:



Esp.-kodea: 2017SAPL0009

2013ko martxoaren 4an, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak Gipuzkoako Lurralde Historikoko tarifa-sistema bateratua ezarri zen, eta horretarako abiapuntua txartel bakarraren eredia eta oinarria teknologikoa izan ziren, Gipuzkoako Foru Aldundiak LURRALBUS marka erabilia arrakastaz garaturik.

Tarifa bateratuaren ondorioa den Gipuzkoako bidaiarien garraio publikoaren esparru berria egiaztatu zen beharrezkoa zela zerbitzua arautzen duten arauak onartzea eta egokitu edo aldatzea, gipuzkoar guztiak eskubide eta betebeharrak izan ditzaten, garraioaren eskumena norena den edo zerbitzua nork ematen duen alde batera utzita. Halaber, zerbitzua ematen duten garraio-eragile guztiak zerbitzu horiei emango dute arau-esparru bakar baten barruan. Partekatutako arau-esparru horrek garraio-eragileak diren enpresen betebeharrak ezarriko ditu, eta orain arte araudirik ez zegoelako edo izatezko hipotesi batzuk ez aurreikusteagatik zeuden hutsuneak konpondu egingo ditu, eta zerbitzua emateko orduan behar den segurtasun juridikoa emango die eragileei.

2015ko otsailaren 15ean indarrean sartu zen Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako Administrazioen eremuan, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erreglamentua.

Erreglamendu honen xedea da Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen titulartasunekoak diren bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularren ematea era bateratu eta homogeneoan arautzea.

Erakunde parte hartzaileek honako konpromezua hartu zuten: alaketak egitekotan, hauek GGLA partzuergoaren esparruan burutzea.

2017ko urriaren 31an Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak Partzuergoaren Asanblada Orokorra, aho batez, Gipuzkoan burutzen diren bidaien dohakotasuna 6 urte zabaltea onartu zuen. Aldaketa honen ondorioz, aitatu erreglamendua aldatu behar da, honek dohakotasuna 5 urte arte aurre ikusten du eta.

Hau guztia dela eta, Arrasateko Udaltzari Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako Administrazioen eremuan, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erreglamentuaren dohakotasun adinaren aldagia onartzea dagokio, 5 urtetik 6 urtera pasatuz.

2017ko azaroaren 2an proposatutako aldagietari buruzko txostena egin du Udaleko idazkari nagusiak.

Horiek horrela, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak egindako proposamena eta 2017ko azaroaren 2an obra publikoak eta mugikortasun sailak egindako txostena ikusirik, proposatzen da

Lehen.- Gipuzkoako Garraioaren Lurralde agintaritzaren barruan daude Gipuzkoako Administrazio eremuan, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erreglamenduak aurre ikusten duen bidaien dohakotasuna 5 urtetik 6 urtera aldatzea.

Bigarrena.- Aitatu erreglamentuko segidako aurre ikuspenak ordezkatu: 5 urte esaten den ataletan, 6 urte esan, 17. Artikuluaren 3. Atala izan ezik.



Esp.-kodea: 2017SAPL0009

Aldatu behar diren atalak honako hauek dira: zioen azalpena V atala, 3. Artikulua definizioak, 17. Artikulua adintxikien garraioa eta 44. Artikulua baliozko garraio titulua eramateko derrigortasuna.

Hirugarrena.- espedientea jendurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Laugarrena.- onartzea informazio publikoaren fasean jasotako alegazioak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren baitan modu bateratuan informatzea.

Bosgarrena.- 2017ko azaroaren 30ean Gipuzkoako Garraioaren Lurralde agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako Administrazioen eremuan, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erreglamentuaren aldaketaren onarpenaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera bidaltzea.

Seigarrena.- Iradokizunik aurkeztu ezean, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako Administrazioen eremuan, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erreglamentuaren aldaketa behin betiko onartutzat joko da, berariazko erabakirik hartu behar izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratu beharko da.

Zazpigarrena.- Udalbatzak harmonizazio-erreglamentuaren aldaketaren onarpenari buruz erabakitakoa GGLAri jakinaraztea, erabakia hartu eta biharamunean.

8.- 2017KO AZAROAK 25, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN NAZIOARTEKO EGUNA. (2017SMOZ0034)

Mugimendu feministak eta emakume erakundeek betidanik eskatu izan dute genero indarkeria ez izatea bakarrik lehentasun politiko bat Estatuan, baizik eta, gainera, aurre egitea aurpegiera guztietatik. Esaten dugunean genero indarkeria dela gizartearen gaitz bat haren egitura guztietan, esaten ari gara indarkeria matxista ez dela kentzen errotik bakarrik neurrien bidez, zeintzuk mugatzen diren indarkeriari aurre egitera bikote/bikote ohiaren harremanen eremuan, baizik eta jokatu behar dela benetan era integralean, gizartean oraindik erroturik dauden egitura patriarkal batzuei aurre egiteko.

Eta horretarako funtsezkoa da prebentzio, sentsibilizazio eta detekzio politikak egitea, zeintzuk landuko duten indarkeriaren aurka era integralean, abiatuko diren indarkeriaren egitura jatorritik eta gai izango diren indarkeria matxistaren adierazpideak detektatzeko.

Emakumeen ehunka hilketa egiten duen indarkeria matxista da adierazpide indartsurik detektagarriena; eta horren aurrean argitasunez adierazi behar dugu gizarte osoaren ardura dela, azpimarratuta indarkeria patriarkalari aurre egin barik haren alderdi guztietan, hilketek hor jarraituko dutela. Jabetu behar gara hori gertatzen dela indarkeria patriarkala gizarte osoan dagoelako, eta geldiarazi egin behar dugula berehala indarkeria hori, bere zer guztietan.



Esp.-kodea: 2017SAPL0009

Ezin dugu onartu XXI. mendean egotea esklabo trafikatuak gizonen kontsumo sexualerako. Prostituzioa da indarkeria matxistaren modu legitimatzaile bat, zeren genero maskulinoak alokatzen baitu emakumeen eta neskatilen gorputzaren erabilera, prezio batean, eta horrekin legitimazioa ematen dio emakumea kontsideratzeari izaki apalagoa, erabili eta erosi egin daitekeena.

Soldata arrakala da, emakumeen eta gizonen artean, balio bereko lanetan, Estatu zapaltzaileak duen formula bat, adierazteko haren ustez bigarren klaseko herritarrak izaten jarraitzen dugula, eta modu bat kontra egiteko gu emakumeok irten ahal izateari lan eremura, baldintzatuz gure autonomia ekonomikoa menpeko izaten jarraitu dezagun.

Sexu erasoak, kasu batzuetan, pasatu dira egintza kriminal indibidual izatetik taldeko egintza izatera, geroago eta gehiagotan presente daudenak gure jaietan eta beste gertaera jendetsu batzuetan.

Nabarmen handitzen ari da eskaria emakumeen sabela alokatzeko, ez dezagun ahaztu emakume txiroak direla, eta horrek ez du bakarrik klase desberdintasuneko esangura nabaria eta esangura xenofoboa, baita ere, esangura patriarkatua du, geroago eta eskrupulu gutxiagorekin, eta legez salerosi gura ditu gure gorputzak, baliatuz haien beharrezakoa eta babestuz desberdintasunean.

Estatu Itunak indarkeriaren aurka, zoritxarrez, huts egin du, izan ere, espektatiba handiak zituzten jarriak emakumeen taldeek eta erakundeek. Bakarrik izan da eszenan jartzea, neurri batzuekin, zeintzuk gehienetan diren bildu direnak aurreko araudietan eta indarrean dauden araudietan. Ez dago denbora konpromisorik, ez aurrekontu xehaturik zertarako diren jakinaraziko duenik, ez inplementazio bermerik, eta, jakina, kanpoan uzten ditu berriro indarkeria era guztiak, egiten dituenak erasotzaileek, emakumearekin bikote harremanik ez dutenak edo izan dutenak.

Ez badugu urratsik ematen esparru lege baterantz indarkeria matxistaren aurka, indarkeria patriarkalaren aurka, jarraituko dugu mugatzen genero indarkeria etxeko eremuan izandako delituetara, eta hondar gisa sexu delituak eremu publikoetara eta delitu transnazioaletara, lotuak mafiekin, zeintzuen helburua den emakumezkoen eta neskatilen salerosketa, sexu esplotazioko helburuekin. Baina horiek dagoeneko delituak dira.

Genero indarkeria dago gizarte egitura guztietan; horregatik gobernuek ezin dute jarraitu zokoratzen indarkeria eremu pribatura eta harremanen eremura, zeren indarkeria matxista baita indarkeria sozial bat, zeina adierazten den banaka eta taldeka; eta, hortaz, ezin da erantzun bakarrik zigor eremutik, prebentzioaren eta hezkuntzaren eremutik ere funtsezkoa baita.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da Lege bat Indarkeria Matxistaren/Indarkeria Patriarkalaren aurka, ere integratzen sartuko duena indarkeria oro emakumeen aurka; izan modu fisikoan, psikologikoan, ekonomikoan, sexuarekin eginak...; eta izan berdin dio zer eremutakoak: familia, bikotea/lan harremana, gizarte, erakunde harremana,...; zeinetan sartu behar diren berariaz hainbat jardun, berebiziko ahuleziako egoeretara zuzenduta.

Udal/probintzia eremua, herritarretik hurbilen dagoena, esparru egokia da neurriak ezartzeko, zeintzuk, eskumen eremuak gainditu barik, eragin dezaketzen modu erabakigarrian emakumeen bizitzan, eta mezu argi eta erabateko bat eman genero indarkeriaren aurka.



Esp.-kodea: 2017SAPL0009

Hortik Arrasateko Udalaren osoko bilkurak konpromiso hau hartzen du:

- Udalerrri Adierazpen bat egitea, genero indarkeriatik libre; lehen neurria aurrez aurre baztertzeko gizartearen gaitz hori. Bistan denez adierazpen hori ezin da gelditu adierazpen formal batean, eduki behar du dimentsio bat benetakoa eta kuantifikatu egin daitekeena, zehaztuko dena proposamenetan, egoki jasoak aurrekontuetan.
- Jardun protokolo bat ezartzea indarkeriaren aurka udalaren barruan.
- Diru eta giza baliabideak sendotzea, berdintasun politika aktiboak garatu daitezen, integralak eta parte hartzaileak, genero indarkeriatik libre dagoen gizarte baten alde, eta arreta berezia jarritz emakume etorkinetan eta berebiziko ahulezia egoeran daudenetan.
- Plan bat ezartzea berdintasunaren alde eta genero indarkeriaren aurka, elkarlanean beste administrazio publiko batzuekin, adostuta mugimendu feministarekin eta emakumeen mugimenduarekin, zeinaren helburua izango den aurrekontuan jasotako neurriak garatzea eta ebaluagarria izatea urtero.

Politikak egitea prostituzioa abolitu dadin, genero indarkeriaren muturreko era baita. Exekututzea politika aktiboak, errotik kentzeko sexu esplotazioarekin lotutako era guztiak; arreta berezia jarrita publizitate ordenantzetan eta zuzenean edo zeharka onartu edo errazten duten jardueretan, esplotazio hori helburu dutenak.

- Kentzea emakumeen publizitate diskriminatzailea edo iraingarria, bai euskarrietan, publizitateetan edo garraio publikoetan (markesinak, bus, taxi, gidak, edo turismo informazioa, ...), bai kontratatu barik hura mantendu edo bultzatzen duten baliabide pribatuz.
- Eskola jarduera osagarriak ezartzea, planteamendu batzuekin bultzatzen dituztenak balio ez sexistak, edozelako diskriminazioaren aurka.

J.L MERINO (IRABAZI):

Como se habló en la Junta de Portavoces el PNV tenía su moción, Bildu tenía su moción, seguramente Baleike tendría otra moción bueno se quedó algunos de vosotros hablasteis de consensuar una declaración institucional nosotros nos negamos a ello y mantuvimos nuestra moción que es esta ¿Por qué la mantuvimos? Porque pensamos que el pleno es el máximo órgano de esta institución que ha reflejado en los archivos, y pensábamos que una declaración institucional se iba diluir, iba a salir un día en la prensa y bueno y se iba diluir.

Pensamos que el tema merece la atención en este pleno y por eso es por lo que planteábamos seguramente, las otras mociones son totalmente aprobables seguramente pero el motivo era ese.

A.EZKURRA (EAJ-PNV):



Esp.-kodea: 2017SAPL0009

Arratsaldeon mahaikideok jaun andreok gaurko bilkurara hurreratu zaretenok arratsaldeon. Bueno Merino jauna zuk ondo adierazi duzuen bezala aurreko bozeramaile batzordean adierazi genizun ba zuk esan duzun bezala EH-BILDUK, bai BALEIKEk eta bai guk geneukan gure proposamena eta hor adostu genuena zan hitz egin genuena zan, proposamena zala dagokion batzordean gai hau tratatzea noski bat gatoz azaroak 25eko emakumearen aurkako indarkeria nazioarteko egunean derrigorrezkoa zela ez bakarrik adierazpen bat irtetzea baizik eta benetan honen inguruan hausnarketa bat egitea.

Eta orduan esan genizun luzatu genizun eskua esanez mesedez utz ezazu mahai gainean, goazen adostera ez bakarrik edukia baizik eta dagokion batzordean emakume txokoko arduradunak baita egonda haber zer gai lantzen diren Arrasaten? Zer gai gehiago landu daitezkeen? Hau da hausnarketa bat egitea eta bueno guk aurrekoan esan genizuen berdina esaten dizugu gai honek behar-beharrekoa daukala honen inguruan hitz egitea? Bai baina aurrekoan esan genizun bezala dagokion lekuan eta egia da plenoa hau dela organo maximoa zuk dinozun bezala eta oraingo honetan daukaguna da eduki bat non bozkatu behar dan bai edo ez eta eduki honek ez du izan inongo hausnarketarik, aurre hausnarketarik eta guk horregatik ezezkoa emango diogu baina dena dela bat gaude zurekin ba dagokion batzordean helduko diogula gaiari.

O.GARCIA(PSE-EE):

Arratsaldeon guztioi. Primero decir que la moción es perfectamente asumible por parte del Partido Socialista perfectamente asumible que estamos de acuerdo con el 99.9 % de lo que se dice en esa moción, también decir que lo que tú le llamas moción del PNV, era una moción que presentamos PNV y el partido socialista. Los dos nos parece que todos tenéis vuestra moción y nosotros no tenemos ninguna también tenemos nuestra moción también hacemos nuestros deberes, también hacemos nuestros deberes. No pasa nada.

Respecto al sentido de nuestro voto vamos a votar en contra en parte por el argumento que ha dado Anuska y si lo que se trata es de que quede en los archivos municipales constancia que he querido entender en tu intervención que al ser el máximo órgano representativo de Arrasate y quedar en los archivos por eso ha traído la moción, yo lanzo el guante podemos acordar entre todos y entre todas una moción en la cual todos y todas nos sentamos cómodos y sea representativa del pueblo de Arrasate por que la moción que se ha leído, se habla de marquesinas de autobuses y demás yo te recuerdo que aquí en Arrasate en ninguna marquesina se pone propaganda, por si acaso pero bueno.

Yo lanzo el guante de hacer una declaración institucional el día 25 y para que quede en los registros de los plenos del ayuntamiento se meta un punto en el próximo pleno para que se lea esa misma declaración institucional y queda recogido en archivos ¿si ese es el problema? Y adoptar entre todos una moción y acordarla en el órgano pertinente que es la comisión de igualdad en la cual con las aportaciones de los técnicos y con las aportaciones de los partidos pues todos podamos llegar a un acuerdo.



Esp.-kodea: 2017SAPL0009

J.L MERINO (IRABAZI):

Si haber aquí de los que se trata no sé si has leído el texto votáis no porque votáis no pero no votáis a un texto votáis no a como se han hecho las cosas es así. Pero yo quiero que se vote el texto, no quiero que se vote si se ha metido esa moción o se ha dejado de meter o se va a acordar una declaración institucional o no se va a declarar no, no yo quiero que se vote el texto, si estáis de acuerdo o no estáis de acuerdo aquí están las cuatro palabras famosas de la portavoz del Partido Nacionalista Vasco que siempre es si estamos de acuerdo, pero cuatro palabras que siempre usa. Hoy también prácticamente.

Yo lo quiero es que se vote el texto estáis de acuerdo o no estáis de acuerdo

I.URIZAR (BALEIKE):

Bai arratsaldeon guk esatea mozioan jarduten diren puntuekin ados gazela eta gainera ez dugu uzten kontraesanik dagoela berdintasun batzordean adierazpen bat lantzea eta puntu hauek eztabaida hortan jorratzea. Beraz, puntuekin ados egonda eta politikoki nahiko adostasun zabal edukita mozioan jorratzen dien gaiekin baiezkoa botatuko dugu.

E.BARBERENA (EH-BILDU):

Arratsaldeon denoi. Bueno ia aipatu da osteguneko bozeramaile batzordeko pasarte bakoitzak gure mozioa aurkeztu ginun bertan puntuz nolabait azalpenekin eta nolabait puntu zehatzekin. Guk EH-Bildun bageneukan kezka bat askotan aurkezten dugun puntu zehatz horrek bai guk eta bai besteok beti izaten dela interesantea tekniko baten iritzia jakitea eta euren aurrean eztabaidatzea aberatsagoa ikusten dugu kasu hortan horregatik proposatu genuen eruatea batzordera gaia emakume txokoko teknikariak bertan egoten direlako eta gure sutez horixe da kasu hontan denboraz ibilita gai hau lantzeko esparruak eta guk kasu honetan testua ez dugu baloratuko.

Iruditzen jaku gauza batzuk eduki leikela beste batzuk ez baina kasu hontan abstenitu egingo gara.

O.GARCIA (PSE-EE):

Ez naiteke egon isilik esan duzunarekin Juan Luis guk ez dugu testua bozkatuko, ez dugu testua bozkatuko guk gure testua aurkeztu genuelako. Gure testua ez dugu gaur hemen aurkeztu denon artean esan genuelako zeozer adostu behar genuela. Beraz ezin dotzut baietza eman nire testua ez dagoelako hemen erreflejauta eta horregatik ezetz bozkatuko dugu ez testua, zuk egin dituzun gauzak edo joerak edo deitu nahi duzuen moduan.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Azkena eta gero bozketara pasatuko gara.



Esp.-kodea: 2017SAPL0009

J.L MERINO (IRABAZI):

Esto es arre o so viene todos los años el 25 de noviembre se podía haber trabajado mucho antes y haberlo tratado en este pleno si se hubiera querido lo que pasa que siempre nos pilla el toro y siempre deprisa y corriendo.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Bertaratuak	21	
Aldeko botoak:	3	BALEIKE (2) eta IRABAZI (1)
Kontrako botoak:	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak:	7	EH-BILDU (7)

Beraz, ez onartua

9.- KATALUNIAKO ERREPUBLIKA AITORTZEKO MOZIOA, EH-BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTEA. (2017SMOZ0035)

Eneko Barberena Mondragon Arrasateko EH Bildu taldeko bozeramaileak, indarrean dagoen erregelamendua baliatuz, ondorengo MOZIOA aurkezten du, OHIKO UDALBATZAN eztabaidatzeko, Katalunia errepublika independentearen aitortzari buruz.

ZIOA:

Eusko Legebiltzarrak adierazi du Kataluniak, Euskal herriak edota hala nahi lukeen ezein herrik, bere etorkizuna libreki, herritarren borondate soilaren arabera, erabakitzeko eskubidea duela. Urriaren 27an, Kataluniako Parlamentuak eskubide hori baliatu eta Kataluniako Errepublika independentea aldarrikatu zuen. Erabakia bertako herritarren borondatean oinarritzen den heinean, zilegitasun demokratiko osoa du, urriaren 1eko erreferendumean estatu espainolaren bortizkeria eta errepresioari herritarren botoak gailendu zitzaizkielako.

Arrasateko Udaltzarren gehiengo osatzen dugun alderdi batzuk ere publikoki aitortu izan dugu errespetatzen ditugula Kataluniako herriak hartzen dituen erabaki demokratikoki eta urriaren 1eko emaitza.

Errepublika independentea aldarrikatuta, Kataluniako Parlamentuak prozesu eratzaille, demokratiko eta parte-hartzailea abiarazi du, eta munduko estatu eta erakundeei dei egin die errepublika katalana estatu independente eta burujabe gisa hartzera. Hori horrela, Arrasateko udalak dei horri erantzun behar dio modu positiboan, eta Kataluniako errepublika independentea aitortu behar du.

Horregatik guztiarengatik, ondorengo mozio proposamena aurkezten dugu ohiko plenoan eztabaidatzeko:

MOZIOA:



Esp.-kodea: 2017SAPL0009

Arrasateko udalak 2017ko urriaren 1ean Katalunian burututako erreferendumaren ondorioz Kataluniako parlamentuak aldarrikatu duen Kataluniako errepublika aitortu eta errespetatzen du, zuzenbide estatu independente, burujabe, demokratiko eta sozial bezala.

Arrasateko Udalak ebazpen hau Kataluniako Generalitateari eta Espainiako gobernuari jakinaraziko die.

E.BARBERENA (EH-BILDU):

